

Axular, Orokieta, Egape eta Hernani BHI-ko lau talderen lanak nabarmendu ditu Kosmodisearen “Grapho” faseak

“Kosmodisearen laugarren fasea –“Grapho” etapa– amaituta, egindako ebaluazioak “Ikono” etapa amaitzerakoan lehen lekuetan kokatzen ez ziren lau talde nabarmendu ditu. Kosmodisea programa Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko departamentuak sustatzen du, Gipuzkoako ikasleen artean kultura ekintzailearen baloreak bultzatzeko xedearekin.

Horrela, honako lau taldeek puntuazio altuenak izan dituzte norbere kategorian: Donostiako **Axular Lizeoko** Kosmojakintsu txikiak taldea Lehen Hezkuntzako 1ean; Zarauzko **Orokieta Herri Ikastolako** Branka taldea Lehen Hezkuntzako 2an; **Egape Ikastolako** Guidoak taldea DBHn; eta **Hernani BHIko** Izpi Beltzak taldea Batxilergoan. Grapho planetaren fasean, talde parte-hartzaileek proiektuak wikiaren bidez planifikatu, garatu eta gauzatu behar dituzte.

Axular Lizeoko Kosmojakintsu txikiak taldeak (**elkarrizketa irakurri**) “Gure baso eta mendiak zaindu ditzagun” proposamena landu zuen eta 1.616,25 puntu eskuratu zituen; jarraian, Amasorraineko Xauxar Zonbia taldea sailkatu zen eta hirugarren lekuan, berriz, Elgoibar Ikastolako Tximistak taldea.



Palkak taldeak, **Orokietako** beste taldeak, bigarren postua lortu zuen, Branka talde irabazlearen atzetik (**elkarrizketa irakurri**). Irabazleak 1.772,91 puntu eskuratu zituen, “Pertsona helduak animatu ditzagun” proposamenaren inguruko lanarekin. Elgoibar Ikastolako Bostak Kosmoan taldea geratu zen hirugarren lekuan.



Urnietako **Egape Ikastolako** Guidoak taldeak “Energia sortzeko bizikletak” proposamena landu zuen (**elkarrizketa irakurri**), eta 1.467 puntu eskuratu zituen; jarraian, oso hurbil, San Benitoko Xerpak taldea (soilik 1,01 puntura) geratu zen eta hirugarren lekuan Aita Larramendiko Zimaik taldea.



Hernani BHI ikastetxean ikasten duten Hernani eta Urnietako bost neskez osatutako Izpi Beltzak taldeak 1.531,34 puntu eskuratu zituen Batxilergoan (**elkarrizketa irakurri**), Ikasbide Ikastolak gure mendi eta basoak zaintzeari buruz egindako proposamenaren inguruko lanarengatik. Maila berean, Aita Larramendi Ikastolako Xamaxa taldeak lortu zuen bigarren lekua eta Hernani BHIko Erantzun zati bat taldeak, aldiz, hirugarrena.





Talde parte-hartzaile guztiek azken faseari, "Mito" etapari, ekin beharko diote orain; helburu nagusia bideo baten bidez proiektua sustatu eta ezagutzera ematea izango da, eta apirilaren 24ra arte izango dute epea. Ondoren, lanen ebaluazioa egingo da eta puntuazio onenak maiatzaren 6an jakinaraziko dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko departamentuak bultzatuta, [Kosmodisea](#) programaren helburua da Gipuzkoako ikasleen balore ekintzaile nagusiak (sormena, autokonfiantza, ekimena, tolerantzia, ahalegina egitea, analisirako gaitasuna, lidergoa, etab.) eta ekiteko gaitasunari lortutako trebetasunak (hizkuntza-arlokoak, zientzia-arlokoak, digitalak, etab.) garatzea. Horretarako, KOSMODISEA irakasle nahiz ikasleek informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erruz erabiltzean oinarritzen da modu estrategikoan. Baliabide horiek (blogak, wikiak, audioa, irudia eta bideoa editatzeko programak, simulagailuak, webquest metodologiak, etab.) KOSMODISEAREN kultura zabala eraikitzeke bitartekoa osatzen dute.

Orain arte, egin diren sei edizioetan, ia 8.500 ikaslek, 866 bat taldek eta 479 irakaslek baino gehiagok hartu dute parte KOSMODISEA ekimenean.

Kosmodisearen webgunea:

www.kosmodisea.net

info@kosmodisea.net

Tel.: 900 840 842